



**KIROL JUSTIZIAKO EUSKAL BATZORDEAREN ERABAKIA, USURBILGO  
KIROL ELKARTEA KLUBEKO ORDEZKARIEK GIPUZKOAKO ESKUBALOI  
FEDERAZIOKO KIROL DIZIPLINAKO BATZORDEAREN 2017KO  
MAIATZAREN 17KO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOA  
EZESTEN DUENA.**

---

**Espediente-zenbakia: 40/2017**

**AURREKARIAK**

**Lehena.**- 2017ko maiatzaren 22an Kirol Justiziako Euskal Batzordearen (aurrerantzean, KJEB) Idazkaritzan Usurbil Kirol Elkartea klubeko presidentearen idatzi bat sartu zen. Horren bidez, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak 2017ko maiatzaren 17an hartutako Erabakiaren aurkako errekurtsoa jarri zuen. Erabaki horren arabera, ez zen baimentzen 2017ko maiatzaren 21ean Eibar Eskubaloia eta Usurbil Kirol Elkartek jokatu behar zuten partida atzeratzea, errendimendu-hastapeneko gizonezkoetako kimuen ligari zegokiona, partida hori aipatutako ligako egutegiko azken jardunaldian jokatzea zelako.

Batzorde honetan jarritako errekurtsoan, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko idazkari teknikoak partida bi taldeek adostutako egunean (2017ko maiatzaren 28an) jokatzea egokia zen edo ez deklaratzeko eta hori frogatzat hartzeko eskatzen zen.

Errekurtsogileak, errekurtso-idatzian, KJEBri honako asmo hauek onartzeko eskatzen zion:



«**LEHENA.**- *Kautelaz ETETEA Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Batzordearen 34/2016-17 aktako 8. erabakia.*

*BIGARRENA.*- *Errekurtso hau aztertu ostean, ONARTU DEZALA errekurtsoaren xede den akordioa BEHIN BETIKOZ EZEZTATZEKO nahikoa arrazoi daudela, eta, gainera, eska diezaiela, hala badagokio, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari etorkizunean antzeko erabakirik ez hartzeko».*

**Bigarrena.**- KJEBk errekurtso hori izapidetzea onartzea erabaki zuen, eta espediente eskatu zion Gipuzkoako Eskubaloi Federazioari. Horrekin batera, alegazioak egitea ahalbidetu, eta egokitzat jotzen zituen froga-eginbideak aurkezteko aukera eman zion. Halaber, errendimendu-hastapeneko gizonezkoetako kimuen Ligan parte hartzen duten beste bederatzi taldeei entzuteko izapidea egin zen.

**Hirugarrena.**- 2017ko ekainaren 1ean, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak alegazioak aurkezteko aukera baliatu zuen. Errendimendu-hastapeneko gizonezkoetako kimuen ligan parte hartzen duten beste bederatzi taldeek ez zuten alegaziorik aurkeztu.

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioak aipatutako Federazioko Kirol Diziplinako Batzordearen alegazio-idatzia helarazi zuen. Idazki horretan, honako hau adierazi zuen:

«*Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehia Batzordeak dagokion egutegia eta Lehia Arauak ezartzen ditu, klubek urteko batzarrean hartutako erabakietan oinarrituta eta, aztertzen ari garen kasuan, ez da arautegia bete, aurkeztu diren datuen arabera:*

**LEHENA:** *Bi klubek egindako eskabidea epez kanpo egin da, federazio honetako Idazkaritzan jasotako mezuetan ikus daitekeen bezala (Usurbil 14:03 eta Eibar 15:31, 2017ko maiatzaren 17an). Hala, Gipuzkoako Eskubaloi*



*Federazioko Lehiaketa Araudi Nagusiaren 3.5 artikulua urratu da eta, gainera, ez da arrazoitu data aldatzea iradokitzen duen arazoa.*

***BIGARRENA:*** *Aztertzen ari garen kasuan, GIPUZKOAKO ESKUBALOI FEDERAZIOKO LEHIAKETA ARAUDIAREN 3.5 puntua aplikatu da (Eusko Jaurlaritzak 2016ko uztailaren 11n onartu zuen erregelamendua). Erregelamendu hori da lehiaketa kontrolatzeko dugun euskarri ofizial bakarra, ERRENDIMENDU-HASTAPENEN KIMUEN LIGAKO arategiak ez dituelako planteatutako egoeraren modukoak arautzen».*

### **ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

**Lehena-** KJEBk du errekurtsio hau aztertzeko eskumena, Euskadiko kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 138.c) artikuluari eta Kirol Justiziako Euskal Batzordea arautzen duen urriaren 18ko 310/2005 Dekretuaren 3.c) artikuluari jarraituz.

**Bigarrena-** Eskolako Kirolari buruzko uztailaren 1eko 125/2008 Dekretuak, 3. artikuluan, honako hau ezartzen du: «*Lurralde historikoetako foru organoek onartuko dituzte eskolako kirol jarduerak arautuko dituzten joko eta lehiaketa araudiak, aldez aurretik Eskolako Kirolaren Euskal Batzordeak emandako txostena ikusi ostean*». Artikulu horren 3. zenbakian eransten denez, eskolako kirolari buruzko programek gehienez ere hiru kirol-ibilbide jasoko dituzte eta horien artean dago «*errendimenduari ekiteko ibilbidea*». Artikulu bereko 4. zenbakian adierazten denez, kirol-ibilbideen barruan hainbat jarduera mota eskain daitezke, eta horien artean, lehiaketa-jarduerak daude. Errendimenduari ekiteko lehiaketak 125/2008 Dekretu horretako 7.2.b) artikuluan definitzen dira, honela: «*Haien helburua errendimenduan eta helburuetan gora egitea xede duen kirol praktikari ekitea da*».



**Hirugarrena.**- Euskadiko Kirolaren ekainaren 11ko 14/1998 Legearen 25.1.i) artikulua eta Euskadiko Kirol Federazioen urtarrilaren 31ko 16/2006 Dekretuko 14.2.i) artikulua araberak, euskal federazioek eta lurralde-federazioek, beteak beste, funtzio publiko administratiboak betetzen dituzte eta, kasu honetan, dagokion Administrazioaren eragile laguntzaile gisa jarduten dute.

**Laugarrena.**- Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak bere alegazio-idazkian adierazten duen moduan, errendimendu-hastapeneko gizonetzkoetako kimuen ligako arautegiak ez ditu aztergai dugun egoeraren modukoak arautzen. Arautegi hori erregelamendu batez osatuta dago eta, horretan adierazten denez, aipatutako ligaren «*helburua 5eko eskubaloia (minihandball) lantzen den eskolako lehiatik 7ko eskubaloi-lehiaketarako trantsizioa izatea da. Hartara, denboraldi berean lehiaketa berrirako trantsizioa egokitzea lortzen dugu*». Erregelamendu horretan honako hau ere eranstean da: «*Lehiaketa urtarrila eta ekaina bitartean gauzatuko da. Oro har, eta eskolako ligak ez oztopatzeko, igandeak hartuko dira lehiaketarako egun gisa, goizez; halaber, klubek, ahal izanez gero, igandeetan egingo dituzte entrenamendu-saioak*». Erregelamenduan zenbait alderdi arautzen dira, hala nola lehiaketan parte hartu ahal izateko baldintzak, taldeen izen-ematea eta erregelamenduan zenbait gaitan egin beharreko egokitzapenak; besteak beste, jokalekuaren eta ateen tamaina, taldeen osaketa, jokalarien errotazio eta ordezteak, partidaren iraupena, materiala eta arau teknikoak. Hori dela eta, Batzordeak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Araudi Nagusia aplikatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko kirolaren arloko organo eskudunak 2016ko uztailaren 11n onartua.

**Bosgarrena.**- Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Araudi Nagusiaren 3.5 artikulua ezartzen duenez, aurretik bi taldeak ados jarri badira eta Federazioaren adostasuna baldin badute, partidak atzeratu ahal izango dira, azken bi jardunaldietakoak izan ezik. Horretarako, bi klubek mezu elektronikoko bat bidali behar diote Federazioari, egun-aldaketa eta partida jokatzeko data eta



ordu berria onartzen dituztena, jokatu beharreko egunaren aurreko astearteko 19:00ak arte.

**Seigarrena.-** Usurbil Kirol Elkarte klubak, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 17ko erabakiaren aurka jarritako errekurtsioan, erabaki hori kautelaz eteteko eskatu zuen.

Eskatutako eteteari dagokionez, Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa) 117. artikuluko 1., 2. eta 3. zenbakiek honako hau xedatzen dute:

*«1. Edozein errekurtsio aurkezteak ez du etengo aurkaratutako egintzaren betearazpena, xedapenen batean bestelakorik adierazten ez bada.*

*2. Aurreko zenbakian xedatutakoa gorabehera, errekurtsioa ebazteko eskumena duen organoak eten ahal izango du aurkaratutako egintza, ofizioz edo errekurtsio-jartzaileak eskaturik, aurretik modu aski arrazoituan haztatuta, alde batetik, eteteak zer-nolako kalteak eragin diezazkiekeen interes publikoari edo hirugarren batzuei, eta, bestetik, errekurtsio-jartzaileari zer kalte egiten zaion egintza errekurrituaren berehalako efikaziaren ondorioz, inguruabar hauetakoren bat gertatzen bada:*

*a) Betearazpenak kalte erreparaezin edo erreparagaitzak ekartzea.*

*b) Aurkaratzearen oinarria lege honen 47.1 artikuluan erabateko deuseztasunerako aurreikusitako arrazoietakoren bat izatea».*

Administrazio-egintzek legezkotasun-presuntzioa dute, nahiz eta aurkaratzeen xede izan bete beharrekoak direlako; jurisprudentziako doktrinak etengabe eta hainbat aldiz adierazi duenaren arabera, etendurari ekiteko, aurreko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearena; aurrerantzean, HAAJAPEL) 111. artikuluari eta hurrengoari jarraikiz, konponezintzat edo konpongaiztat jotzen diren kalte eta galerak egiaztatu egin behar dira. Hau da, etenduraren eskatzaileari argudiatzen zituen kalteen edo galeren errealitate posible,



gertagarri eta aurreikusgarria frogatzeko eta bermatzeko datu, elementu eta inguruabar guztiak emateko exijitzen zion.

Beraz, kalte edo galera horiek egiaztatu diren zehaztean datza kontua. Galdera horri ezezko erantzuna eman behar diogu; izan ere, kautelazko neurriaren eskaera justifikatzeko egiten diren alegazioetan jasotako gauza bakarra da ezin dela bete bi klubek partida biek libreki erabaki zuten datan jokatzeko zuten borondatea.

Gainera, ez da inolako baliogabetasun-kausarik hauteman, Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 47.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

**Zazpigarrena**.- Usurbil Kirol Elkartea klubak Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 17ko erabakiaren aurka jarri zuen errekursoan adierazi zuenez, erabaki hori ez zegoen arrazoituta, argudioa ez zelako lehiaketa-erregelamendu edo -oinarrietan funtsatzen.

Alegazio-idazkian, Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak adierazi zuen Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Araudi Nagusiaren 3.5 artikulua aplikatu zela.

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 17ko Erabakian honako hau adierazten da hitzez hitz: «*Eskatutako atzerapena ez baimentzea, lehiaketako azken jardunaldia delako*». Hortaz, ez du aipatzen Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Lehiaketa Araudi Nagusiaren 3.5 artikulua, eta zuzenagoa izango zatekeen.

Hala ere, argudioan ez dira nahitaez alderdi eta ikuspegi guztiak sakon eta xehe arrazoitu behar; aldiz, nahikoa da erabakia funtsezko zer irizpidetan oinarritu den arrazoitzea, interesdunek erabaki hori juridikoki zuzena edo okerra



den ikusi eta aurkaratu edo ez erabaki ahal izan dezaten (Auzitegi Gorenaren 1995eko urriaren 31ko eta 1998ko otsailaren 11ko epaiak, beste askoren artean). Aztergai dugun kasuan, interesdunek Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak hartutako erabakiaren oinarrian dagoen funtsezko irizpidea ezagutu ahal izan dutela kontsideratzen da.

**Zortzigarrena.**- Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak 2017ko maiatzaren 17an hartutako erabakiaren aurka jarri duen errekurtsioan Usurbil Kirol Elkartea klubak adierazten zuenez, batzorde horrek ez zuen espedienterik ireki, atzerapenaren arrazoiak ezagutzeko, eta eransten zuen kirolariek beren adinean ohikoa den «*kirol anitzarekin*» aurretiazko konpromisoak zituzten eskola-umeak zirela eta beren ikastetxeekiko konpromisoak ere bazituztela.

Horri lotuta, atzerapena eskatzeko arrazoiak klub interesdunek atzerapena eskatzeko bidali zituzten mezu elektronikoetan aipatu behar zirela kontsideratzen da.

Horrez gain, bi klubek errendimendu-hastapeneko kimuen ligarekiko aurretiazko konpromisoa (lehiaketa-egutegia urtarriletik ekainera artekoa da) ondo ezagutzen zutela kontsideratzen da.

**Bederatzigarrena.**- Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordeak errendimendu-hastapeneko gizonezkoetako kimuen ligan Federazioaren Lehiaketa Araudi Nagusia behar bezala aplikatu duela kontsideratzen da, baita aztergai dugun kasuan aipatutako araudiko 3.5 artikulua behar bezala aplikatu duela ere.

**Hamargarrena.**- Errekurtsioan proposatutako froga-eginbidea ezetsi egiten da (Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko idazkari teknikoaren deklarazioa), ez delako beharrezkoa.



Horren guztiaren ondorioz, Kirol Justiziako Euskal Batzordeak honako hau

## **EBAZTEN DU**

Gipuzkoako Eskubaloi Federazioaren Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 17ko erabakia eteteko kautelazko neurria ukatzea.

Usurbil Kirol Elkartea klubeko presidentek Gipuzkoako Eskubaloi Federazioko Kirol Diziplinako Batzordearen 2017ko maiatzaren 17ko erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa ezestea. Erabaki horren arabera, ez zen baimentzen 2017ko maiatzaren 21ean Eibar Eskubaloia eta Usurbil Kirol Elkartea taldeek jokatu behar zuten errendimendu-hastapeneko gizonezkoetako kimuen ligako partida atzeratzea.

Erabaki honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsioa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Kirol Justiziako Euskal Batzordeari, hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahal izango dute Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian edo errekurtsogileen helbidearen arabera dagokienean, bi hilabeteko epean, erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, hala xedatzen baitu Administrazioarekiko auzien jurisdikzioari buruzko uztailaren 13ko 29/1998 Legeak.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko uztailaren 14a





**JOSÉ LUIS IPARRAGIRRE MUJICA**  
Kirol Justiziako Euskal Batzordeko presidentea